


Metro-pasantearen obrak gelditzearen inguruan Donostiako EH Bilduk egindako ikerlanaren behin- behineko ondorioak



Iturria: Untzi Museoa- EH Bildu

1. Ikerketa

- Ekainaren 5ean Zubieta kaleko eraikinean zuloa agertu ondoren, EH Bilduk ikerlan propio bat abiatu zuen. Ez genituen ontzat eman Eneko Goiak eta ETSko ordezkariak, hauteskunde testuinguru batean, emandako azalpen eskasak (“dena kontrolpean dago”, “ez da berriz gertatuko”). Beraz, txosten teknikoak eta geologikoak aztertzeari ekin genion, eta prozesua ezagutzen duten zenbait eragile eta norbanakoekin harremanetan jarri ginen.

Irailaren 25ean ETSk Mirakontxa Easo zatiaren lizitazioa bertan behera utzi nahi zuela iragarri zuenean, lan hau azkartu genuen eta, honen bidez, behin-behineko ondorioak aurkeztera gatoz.

- Harremanak: langileen ordezkariak, adituak, eragile sozialak...
 - Txostenak: Mirakontxa-Easo zatiaren proiektu konstruktiboa, bizilagun eta langileen kezak, ETSk Zubieta kalean egindako txosten osagarriak...
- Ikerketa osatu gabe dago, behin-behinekoa da. Izan ere, txosten oso garrantzitsu bat falta zaigu: kontratua bertan behera uzteko arrazoi teknikoak jasotzen dituen dokumentua. Ez da ulertzen zergatik egin duten publiko Mirakontxa-Easo zatiaren esleipena bertan behera utziko dutela, une berean argudio teknikoak publiko egin gabe. Bai Arriola sailburuak, bai Goia alkateak eman duten esplikazio bakarra izan da “ura eta harea” azaldu direla. Oso azalpen eskasa, berriz ere, sekulako dirutza suposatzen duen erabaki bat justifikatzeko. EH Bilduk, bere aldetik, Eusko Legebiltzarrean eskatu du txostena ofizialki, eta beste bide batzuetatik ere bilatzen ari gara.

2. Datuak

- **40 milioitik gorako gainkostua, momentuz.** Mirakontxa-Easo zatia 53,2 milioi eurotan esleitu zitzaion Sacyr-Cavosa-Campezo-Mariezcurrera-Zubieder ABEEari, ETSk aurreikusitako lizitazio-prezioa baino % 26 gutxiagoren truke. Egitasmoak izan dituen gorabeherak direla medio, oraindik ezin da jakin zenbatekoa izango den herritarrek ordaindu beharko dugun gainkostua. Zain dago indarrean dagoen esleipenaren likidazioa eta ordaindu beharreko kalte ordainen kopurua (ordaintzen badira). ETSk irailaren 25eko bere prentsa-oharrean adierazi zuen “aurrekontua nabarmen handitu” egingo zela, zenbaki bat eman gabe. Baina kontratua bertan behera uzteko, kasu honetan, % 50etik gorako gainkostua eduki behar duela kontuan hartzen badugu, eta iturri estraofizialek % 70tik % 90rainoko gainkostuak eman badituzte, ondorioztatu daiteke, eta esleipen berriaren kopuruak jakin baino lehen, une honetan, gainkostua 40 milioitik gorakoa dela. 50 milioikoa ere izan daitekeela diote obraren inguruko hainbat iturrik (alegia, % 100eko gainkostua).
- **Zubieta kaleko zuloa agertu zenetik obrak geldituta daude zati osoan.** ETSk, ekainaren 23ko 1255 irteera zenbakia duen agiri baten bidez, honako hau jakinarazi zien

ofizialki eraikuntza enpresei: “Ekainaren 18an burututako lan saioan Donostialdeko metroaren Mirakontxa-Easo tartea eraikitzeko obraren 1. proiektuaren aldaketa izenekoari buruzko kontratuaren aldi baterako etenaldi partziala” onartu zela. Dokumentu honetan oinarritzen da langileak kaleratzeko prozedura osoa, hasieran abendura arte luzatu behar zena, eta orain, antza, behin-betirako izango dena. Ondorioz, obrak geldituta daude, ez bakarrik zuloa gertatu zen tokian, Zubieta kalean, tarte osoan baizik. Informazio honek talka egiten du, aurrez aurre, Eneko Goiak ekainaren 15ean Udal Batzordean egin zituen baieztapenekin:

“Lan-tajo desberdinak daude, tramo honetan lanean dihardute San Martin kalean, Easo kalean, Morlanseko estazioan eta Easotik datorren frentean. Gelditu dena da arazoa hau eragin duen frentea, baino beste guztiek jarraitzen dute lana normala egiten”.

Zentzu beretik, adierazpenak egin ditu Goiak zenbait komunikabidetan udaran zehar. Azken aldiz, irailaren 20an, Radio Euskadin, Amaratik datorren frentean obrak martxan zeudela adierazi zuen.

Eta informazio hauek gezurtatzen dute uztailaren 20an Donostiako Udaleko ETSko obren jarraipena egiteko batzorde ez-iraunkorraren bileran ETSko obra-zuzendariak adierazi zuena: gertatukoa normala zela horrelako lanetan eta ez zela Zubieta kalean gertatutako istripuaren moduko beste gertaerarik izan.

Era berean, Goiak ekainaren 15ean adierazi zuen argi eta garbi ETSrekiko komunikazioa “etengabea” zela, eta iritsi zen esatera erabaki garrantzitsuak “bere mahaian” ixten zirela.

Hau da, bai Goiak bai ETSk dena geratuta zegoela bazekiten, eta ez zuten egia esan aipatutako bi udal batzordeetan.

- **Beste zulo bat Urbieta kalean.** Uztailaren 20ko datarekin, Lanen Zuzendaritzak jakinarazi zuen 1+216 puntu kilometrikoan, obrak geldiarazi behar izan zituela “mazizoaren kontsolidazioa eta zulaketa frontearen egonkortasuna bermatzearren”. Urbieta kalean dagoen Amara Berri eskolaren azpian dagoen eremuari buruz ari gara. Langileen iturrien arabera, ekainean Urbieta kalean beste zulo bat agertu zen tunelean, eta ur-gazi asko sartu omen zen barruan. Ez dirudi lur-gainean, bertan dauden eraikinetan, zulo honek aterabidea izan zuenik.
- **Eremuaren izaera.** Donostiako edozein herritarrek badaki inguru hori guztia padura bat zela zabalgunea eraiki zen arte. Edozein herritarrek esango zukeen, geologia ikasi beharrik gabe, tunel bat egiten baduzu Easotik Mirakontxara, Kontxatik pasata, ura eta harea aurkituko dituzula. Baina herri-jakinduriaz haratago, egia esan, azken hamarkadetan obrak egin dira inguru horretan: Alderdi Ederren parking-a eta Okendoren birmoldaketa, adibidez, eta harea eta ura agertu ziren han.
- **Harea 400 metrotan.** Dirudienez, zati honetan arazo geologikoa duten 400 metro zulatzea falta da, Easo plaza eta hondartzaren artean. Argudiatu dutenez, arazoa harea eta ura dira,

eta horrelakorik ez zutela aurreikusi hasierako proiektuan. Diotenez, horixe da zulaketa-metodoa askoz garestiagoa den beste batera aldatu behar izateko arrazoia, eta, beraz, egitasmo osoa berriro lizitatu behar izateko arrazoia. EH Bilduk kontsultatutako adituen arabera, ez da sinesgarria orain adieraztea eremu horretan harea eta ura agertu direla eta hori dela arazoa. Egia da georradar bat erabili zutela Zubietako zuloa agertu ondoren, baina ETSk berak emandako txosten baten arabera, georradarrarekin egindako profilak Zubieta kalean, Londres hotelaren inguruan eta Kontxako aldageletan egin dira, eta ez 400 metro horietan.

Zubieta kaleko bizilagun batek, bere etxean gertatutako pitzadurak direla-eta, 2020ko otsailean egindako salaketaren harira, ETSk martxoan ondorengoa erantzun zion: "Metroaren bi zatietan aurreikusitako lurpeko obrak mazizo arrokatu batean garatzen ari dira, arroka osasuntsuan egin beharreko indusketa-metodoa egokiaz".

Orain diote "Easo inguruan sakonera handian, hondarrak eta oso trinkoak ez diren lurzorua" agertu direla. Eta gainera, Arriola sailburuak urriaren 7an egindako adierazpenen arabera, "arazoak 400 metro eskasetan daude: Easo plazaren lurpean (40 m-ko harri bigun iragazkorra, sendotzea eskatzen duena) eta Kontxako hondartzaren azpian (barrunbe mikrokarstiko bat, filtrazioen jatorria)."

Hau da, oraindik zulatu gabeko eremu honen inguruan iragarpen kontrajarriak egiten ari dira. Obraren arduradunen arabera, ekainaren 5era arte, egindako azterketek argi eta garbi ondorioztatu zuten dena arroka osasuntsua zela, baina, gauetik goizera, orain 400 metro horiek ezegonkorrak dira, zulaketa egiteko metodoa aldatu behar da eta obra berriro lizitatu behar da.

- **Zundaketak:** Arriolak aipatu du 105 zundaketa egin zirela proiektua garatzeko. Guk 2016ko *Mirakontxa-Easo proiektu konstruktiboko 5. anejoa Geologia eta Geoteknia* begiratu dugu, eta bai, bertan 105 zundaketa daude, baina asko aurretik egindako lanekin lotutako zundaketak dira, beste obra batzuetakoak (San Martingo merkatua, Cervantes plazako aparkalekua...), soilik 7 dira berriak, 2016koak, informazioa osatzeko. Nahiz eta aipatzen den, informazio geoteknikoari dagokionez egon daitezkeen hutsuneak betetzeko, kanpaina-proposamenaren dokumentu bat eta dagokion kanpaina geoteknikoa egin behar izan direla. Aurrekarien faseen azterketa eta/edo saiakuntza batzuk ez baitaude georeferentziatuta eta ez da zantzurik aurkitu saiakuntza horien benetako posizioa zein den. Baina horretarako bakarrik 7 zundaketa egin dira (bakarra Kontxan eta bi Eason).

Bestalde, Kontxa ingurua aztertuz, gutxienez ikusi ahal izan dugu badaudela 2012ko bi zundaketa, arreta ematen dutenak: SPC-12 eta SPC-22. Batean, SPC-12 zundaketan, substratu harritsu osasuntsua-20 kotan agertzen dela nabarmentzen du txostenak; hau da, harea geruza besteetan baino lodiagoa dela, eta harkaitz gutxi duen gunea.

Besteak, SPC-22 zundaketak, arroka hauskortasun handia duela nabarmentzen du.

Beste zundaketak aztertzen jarraitzen dugu.

Bestalde, jakina da, eta inguruko bizilagunek horrela salatu zuten, 2019an zundaketa berriak egin zirela Easo plazaren inguruan. Horri buruz ere galdetu genuen Legebiltzarrean 2019ko urrian eta zundaketa berri horien emaitzak eskatu genituen. Ez genuen hori jaso eta oraindik ere ez dugu horren berririk izan.

Azkenik, Zubieta kaleko istripuaren ondoren, ETSk, uztailaren 2ko data duen txosten batean, ETSk ikerketa geoteknikorako kanpaina osagarri bati ekin ziola adierazi zuen, Kontxako hondartzako hareatzaren eta inguruko eraikinen, bideen eta espazio publikoen azpiko lurpea hobeto ezagutzeko. Egun, urrian, ikerketa horren emaitzak jakin gabe jarraitzen dugu.

- **San Bartolomen sarrera berria:** Obrak geldituko zirela eta lizitazio berria egingo zela iragarri zenetik 10 egun baino igaro ez zirenean, San Bartolome Muinoko iturriek eta Donostiako Udalak urriaren 6an jakinarazi zuten arazo teknikoak zeudela eta Kontxa geltokiko metroaren sarrera bat lekuz aldatu eta San Bartolome kalera eraman behar zutela (hasieran, zazpi solairuko merkataritza-zentroaren -1 solairuan aurreikusita zegoen). Aldi berean, lur azpiko aparkaleku berri baten emakida iragarri zuten, hiriaren erdiguneko eremu honetan, txandakako 200 plazarekin eta 71 egoiliarrentzat.
- **Lan baldintza oso txarrak.** ELA sindikatuak metroaren obrak hasi zirenetik salatu zuen moduan, langileak lan baldintza oso txarretan aritu dira lanean. Alde batetik, egindako ordu kopurua behar dena baina handiagoa delako eta ez datozelako bat ez hitzarmenekin, ez izan beharko luketen soldatarekin; eta bestetik, segurtasun faltagatik. Hasieratik salatu izan dute langileek segurtasun falta izan dutela lur azpian lanean, lan-istripu batzuk ere izan direlarik tartean. Langile batzuek ere borondatezko baja eskatu behar izan dute haien segurtasuna bermatzearren. ELAk salaketa ugari aurkeztu ditu hasieratik langile hauen baldintzak salatzeke, baita horietako batzuk irabazi ere.
- **Lur-mugimenduak:** bere garaian jakitera eman zen bezala, EAEANK ELAri arrazoia eman zion pasa den ekainaren 10ean plazaratutako sententzia batean, egiaztatu baitzuen “metroko lanetako lurren garraioa eta mugimendua egiten ari diren langileen bizi eta osotasun fisikorako oinarrizko eskubideak urratu direla, kamioien Gehienezko Pisu Baimendua (GPB) gaindituta. Garraiolariak karga zaborteaira eramaten dutenean, GPBa baino % 50 gehiago ere eraman izan dute; honela arriskuan jartzen da langilea, baina baita bidean dabilzan beste gidariak ere”.

Epai hau lan osasunari dagokionez aurrerapauso handia izan da. Orain arte ohikoa zen auzitara jotzea behin lesioa gertatu eta gero; haatik, epai honek bide ematen du istripua edo kalte fisikoa gertatu aurretik enpresaren kontra jotzeko, honen erabaki edo omisio batek langileak arriskuan jartzen dituenean.

Bada, jakin ahal izan dugunez, EAEANren epai hau “Excavaciones Imanol Lasa S.L.” enpresari jarritako 25 isunetan oinarrituta dago. 25 isun jarri zizkion Ertzaintzak enpresa honi egindako 25 ikuskapenetan, hau da, ikuskatutako kamioien % 100 gainkargarekin zihoazen, eta, dirudienez, kamioietako batzuk IATrik gabe zeuden. EH Bilduk tramiteak hasi ditu isunen zenbatekoa eta kobrantza erregistroak ezagutzeko.

Enpresa-jarduera hau guztiz onartezina da, ez bakarrik lan-segurtasunaren ikuspegitik, baita hiritarren segurtasunaren aldetik ere. Kamioi horiek Donostiako kaleetan zehar ibiltzea benetako arriskua izan arren, Udal Gobernuak ez du salaketa publikorik egin.

- **Lur gaineko obrak.** Arriola sailburua, Eneko Goiarekin bildu ondoren, adierazi zuen "Interes orokorragatik" lur gaineko obrek San Martin kalean eta Eason jarraituko dutela, eta bide horietan ibilgailuen trafikoa 2021eko uztailen martxan jartzea espero dutela, hasiera batean aurreikusi bezala. Edozein kasutan, gaur egun, ezin da ziurtatu lizitazio berriari idatziko den proiektu berriaren ondorioz, lur gainean beste obrarik egingo ez denik.
- **Itsasertzeko horma:** Metro pasantearen obren eraginez, itsasertzeko horma kaltetuta dagoela ziurtatzen duen ebidentziarik ez dugu aurkitu, oraingoz. ETSk abuztu hasieran Kontxako arkupeetan obrak hasi zituenean iturri batzuek hori adierazi zuten arren.

3. Behin behineko ondorioak

- **Hipotesi nagusia:** metro-pasantearen arduradunek Kontxa inguruan ura eta harea agertuko zirela ez jakitea baztertu beharreko hipotesia izanik, ondorioa da duela hilabete asko bazekitela obra gelditu egin beharko zela Kontxa ingurura iristean. Gutxienez 2019ko zundaketa-kanpaina berria hasi baino lehenagotik. Eta ezin da baztertu obra hasi aurretik ere ondo baino hobeto jakitea. Baina, azaldu beharko dituzten arrazoiak direla medio, jendaurrean adierazi dute obrak normaltasunez egiten ari zirela.
- **Erantzukizunak:** Esleipen bat halako baja handi batez egiten denean, gero akatsak eta gainkostuak badaude, kasu honetan bezala, erantzukizun handiagoa du proiektua esleitzen duenak irabazten duenak baino. Gogoratu behar da Eusko Jaurlaritzak, Euskal Trenbide Sarearen (ETS) bitartez, Sacyr-Cavosa-Campezo-Mariezcurrera-Zubieder aldi baterako enpresa-elkarteari Mirakontxa Easo tarteko obraren kontratua eman ziola, 2017ko abenduan. Eta Arantza Tapia zen, orduan, ETSren arduradun nagusia.
- **Iluntasuna da nagusi:** Benetan kezkarria da metro-pasantearen lanei buruz dagoen opakutasuna. Ez dago herritarrei azalpenak emateko inongo borondaterik. EH Bildu izan da, behin eta berriz, ordezkari politikoak azalpenak ematera behartu dituena, bai Legebiltzarrean, bai Donostiako Udalean. Zoritxarrez, hitz egitea lortu dugun arren, ez dugu lortu herritarrei egia esatea, ez dute kontatu benetan zekitena, lur azpian gertatzen ari zena, baina ezta bulego publiko-pribatu ilunetan gertatzen ari zena ere.

Bada garaia metro-pasantearen obretan modu batera edo bestera parte hartzen duten administrazio publikoek beharrezko azalpen guztiak eman ditzaten. Donostiarrei azalpen argia, zorrotza eta gardena zor diete agintariek. Dagoeneko ospetsua den "harea eta ura agertu dira" azalpenetik haratago joan behar duen azalpen bat. Eta oso berandu doaz.

- **Zentzugabekeriak goia jo du.** Hasieratik esan du EH Bilduk metro-pasantearen obra ez zela beharrezkoa, herritarren sektore zabalekin bat eginez. Baina orain diru publikoaren

xahuketa handiagotu egingo dela onartu denean, are eta zentzugabeagoa dela uste dugu. Kudeaketa negargarria izan da. Eta are larriagoa dena: langile eta herritarren seguritatea jarri da arriskuan. Honen aurrean, informazioa areagotu beharrea, ezkutatu egin dute. Eta hau dena pandemia baten erdian. Diru publikoaren xahutze izugarri batez ari gara, hurrengo urteotan metro pasantearen obretan egindako akatsak konpontzeko erabili nahi dutena, pandemiaren ondorio sanitario, ekonomiko eta sozialei aurre egiteko erabili beharrea.